# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Administrazio Xedapenak

*Zerga Premiatasuneko Araugintza Dekretuak*

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**4698**

**4/2013 ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA, irailaren 17ko Diputatuen Kontseiluarena, baimena ematen duena zerga garrantzia duten datuak lagatzeko, helburua baita doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzea.**

Nabarmen areagotu direnez doako justizia izateko herritarrek egiten dituzten eskaerak, horrek arrisku handian jar dezake hori bezalako zerbitzu garrantzitsu bat, gizarte kohesioari dagokionez, bermatu egiten baitu pertsona guztiek beren eskubideak epaitegietan defenda ditzaketela beren ekonomia gaitasuna gorabehera.

Lan handia da eskatzaileek doako justizia izateko baldintzak, haien zerga datuen egiaztagirietan oinarrituak, betetzen dituztela egiaztatu eta kudeatzea abokatuen elkargoetako aholku zerbitzu juridikoek eta doako laguntza juridikoa ematen duten lurralde batzordeek, eta horrek oztopoak eragiten dizkio kudeaketaren azkartasunari.

Laguntzea izan ohi denez Arabako Foru Aldundiaren borondatea, ezin saihestuko irizten dio, ahal duen neurrian behintzat, arazo hori gerta ez dadin ahalegintzeari. Hori lortzeko posible eta beharrezkoa da eraginkortasuna lantzea, albait gehien aprobetxatuz erakunde arteko lankidetzak ematen dituen aukerak, baita egun eskuragarri dauden baliabide telematikoak ere.

Hortaz, zerga garrantzia duten datuak bide telematikoen bidez lagatzeko lankidetza hitzarmen iraunkorrak ezartzea tresna eraginkorra da, zeinak oraingo kudeaketa sistemari nahitaez ekarri behar dion bizkortasun eta eraginkortasun handiagoa doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzeko.

Arazoari irtenbidea bilatzen laguntzeko borondatea zerga premiazko araugintzako dekretu honetan adierazten da; hain zuzen ere, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra, Arabako Zergena, aldatzea xede duen zerga premiazko araugintzako dekretu honetan, halako moldez non, han jasota geratuko den laga egingo zaizkiela zerga garrantzia daukaten datuak Abokatutzaren Kontseilu Nagusiari eta abokatuen elkargoei, doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzeko.

Xedapen honek presa dauka, albait eta azkarren sartu beharra daukalako indarrean arauaren aldaketa horrek.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horren inguruan emandako txostena ikusi da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluan gaur egindako bilkuran eztabaidatu ondoren, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako Zergenak, 8. artikuluan, eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubidearenak, Arabako Foru Aldundiari emandako eskumenez baliatuz, premia arrazoiengatik hauxe

XEDATZEN DUT

**Artikulu bakarra. Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra, Arabako Zergena, aldatzea.**

Beste letra bat erantsi zaio otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako Zergenak, bere 92. artikuluan duen 1. paragrafoari; hain zuzen ere, o) letra. Honela egongo da idatzita aurrerantzean:

"o) Abokatutzaren Kontseilu Nagusiarekin eta abokatuen elkargoekin lankidetzan aritzea doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzeko, emandako datuen gai diren zergapekoek baimena eman ondoren".

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones Administrativas

*Decretos Normativos de Urgencia Fiscal*

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**4698**

**DECRETO NORMATIVO DE URGENCIA FISCAL 4/2013, del Consejo de Diputados de 17 de septiembre, que autoriza la cesión de datos con trascendencia tributaria para el reconocimiento del derecho a la asistencia jurídica gratuita.**

El incremento significativo de las solicitudes de Justicia Gratuita por parte de la ciudadanía puede poner en serio riesgo un servicio tan importante como éste, en términos de cohesión social, pues garantiza que todas las personas puedan defender sus derechos ante los tribunales con independencia de su capacidad económica.

La comprobación y gestión por parte de los Servicios de Orientación Jurídica de los Colegios de Abogados y de las Comisiones provinciales de Asistencia jurídica gratuita de los requisitos de los solicitantes para el acceso a la Justicia Gratuita, basados en certificaciones de los datos fiscales de los demandantes, resulta laboriosa suponiendo inconvenientes en la agilidad de la gestión.

La habitual vocación de colaboración de esta Diputación Foral de Álava considera ineludible, en la medida de sus posibilidades, contribuir a evitar ese problema. Para lograrlo resulta posible y necesario avanzar en eficiencia, aprovechando al máximo las oportunidades que ofrece la colaboración interinstitucional, así como los medios telemáticos disponibles en la actualidad.

Por lo tanto, el establecimiento de Convenios de Colaboración permanente, para la cesión de datos con trascendencia tributaria por canales telemáticos, se revela como una figura eficaz que necesariamente ha de redundar en una mayor agilidad y eficacia del actual sistema de gestión para el reconocimiento del derecho a la asistencia jurídica gratuita.

Esta voluntad de apoyo y búsqueda de solución al problema se manifiesta en el presente Decreto Normativo de Urgencia Fiscal que tiene por objeto la modificación de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, de forma que se contemple en la misma la cesión de los datos con trascendencia tributaria al Consejo General de la Abogacía y a los Colegios de Abogados para el reconocimiento del derecho a la asistencia jurídica gratuita.

La urgencia de la adopción de esta disposición deriva de la necesidad de que esta modificación normativa entre en vigor a la mayor brevedad posible.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy, en uso de las atribuciones que concede a la Diputación Foral el artículo 8 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava y la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, -de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava-, por razones de urgencia,

DISPONGO

**Artículo Único. Modificación de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava.**

Se añade una nueva letra o) al apartado 1 del artículo 92 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, que queda redactada de la siguiente forma:

"o) La colaboración con el Consejo General de la Abogacía y con los Colegios de Abogados para el reconocimiento del derecho a la asistencia jurídica gratuita, previa autorización de los obligados tributarios a que se refieran los datos suministrados."

AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa. Indarrean sartzea.**

Xedapen hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

**Bigarrena. Gaitzea.**

Arabako Foru Aldundiari baimena eman zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

**Hirugarrena. Biltzar Nagusietara bidaltzea.**

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Biltzar Nagusiei aurkeztuko zaie, berretsi edo baliogabetu dezaten, indarrean dagoen arautegian ezarritakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko irailaren 17a.– Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Diputatua, AITOR URIBESALGO LORENZO.– Ogasun Zuzendaria, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

DISPOSICIONES FINALES

**Primera. Entrada en vigor.**

La presente disposición general entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOTHA.

**Segunda. Habilitación.**

Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente disposición general.

**Tercera. Remisión a Juntas Generales.**

Este Decreto Normativo de Urgencia Fiscal se someterá a las Juntas Generales de Álava, para su convalidación o revocación, de conformidad con lo establecido en la normativa vigente.

Vitoria-Gasteiz, a 17 de septiembre de 2013.– Diputado general, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, AITOR URIBESALGO LORENZO.– Director de Hacienda, JUAN IGNACIO MARTÍNEZ ALONSO.

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

## TOKI ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**4696**

**445/2013 ERABAKIA, irailaren 10eko Diputatuen Kontseiluarena, Acebedoko Administrazio Batzarreko bigarren kide kudeatzailea izendatzen duena.**

Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeak Arabako Foru Aldundiari jakinarazi dio hutsik dagoela kargu bat Acebedoko Administrazio Batzarrean, Nazario Carbajo Rojo jaunak karguari uko egin diolako.

Horiek horrela, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuetako Errejidore eta Kideak Hautatzeko Foru Arauak 18. eta 21. artikuluetan eta Arabako Foru Aldundiaren martxoaren 26ko 829/1985 Erabakiak, ezartzen dituenak Arabako administrazio batzarretako batzorde eta kide kudeatzaileak izendatzeari, eratzeari eta haien funtzionamenduari buruzko arauak, 2. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz, egoki jotzen da kide kudeatzailea izendatzea administrazio batzar horretan dagoen kargu hutsa betetzeko, hauteskundeak egin arte.

Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 8ko 62/2012 Foru Dekretuak Toki Administrazioaren Sailari ematen dio administrazio batzarretako hauteskunde araubidearen jarraipena egiteko ahalmena, beste eginkizun batzuen artean. Horren ondorioz, erakunde horri dagokio kargu horiek beteko dituzten pertsonak proposatzea, Foru Aldundiak izenda ditzan.

Horregatik, Toki Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Mª Jesús Conde Gallo andrea izendatzea Acebedoko Administrazio Batzarreko kide kudeatzaile bigarrena.

Bigarrena. Martxoaren 26ko 829/1985 Erabakiak bigarren paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz, aipatutako kide kudeatzailea errejidore-lehendakariak horretarako beren-beregi deituko duen aparteko bilkura batean jabetuko da karguaz. Erabaki hau jaso eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan egingo da bilkura hori.

Bilkura egin eta hurrengo hiru egunen buruan bidaliko zaio Arabako Foru Aldundiari bilkura horretako aktaren ziurtagiria.

Hirugarrena. Toki Administrazioaren Sailak erabaki hau ALHAOn argitara dezala.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko irailaren 10a.– Diputatu nagusiordea, MARTA ALAÑA ALONSO.– Toki Administrazioaren Saileko foru diputatua, JAVIER RUIZ DE ARBULO CERIO.

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

## DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL

**4696**

**ACUERDO 445/2013, del Consejo de Diputados de 10 de septiembre, que designa la Vocal Gestora Segunda de la Junta Administrativa de Acebedo.**

La Junta Electoral del Territorio Histórico de Álava ha puesto en conocimiento de esta Diputación Foral la existencia de una vacante en la Junta Administrativa de Acebedo producida como consecuencia de la renuncia a su cargo de uno de sus miembros.

A la vista de lo anterior, procede, conforme a lo dispuesto en los artículos 18 y 21 de la Norma Foral de Elección de Regidores y Vocales de los Concejos del Territorio Histórico de Álava y apartado Segundo del Acuerdo de la Diputación Foral 829/1985, de 26 de marzo, por el que se dictaron normas sobre el nombramiento, constitución y funcionamiento de Comisiones Gestoras y Vocales Gestores de las Juntas Administrativas de Álava, designar a la persona que, en calidad de Vocal Gestora, ocupe la vacante existente en la citada Junta Administrativa hasta la celebración de nuevas elecciones.

El Decreto Foral número 62/2012, del Consejo de Diputados de 8 de noviembre, atribuye al Departamento de Administración Local, entre otros cometidos, el seguimiento del régimen electoral de las Juntas Administrativas, dentro del cual ha de comprenderse el de proponer las personas que nombre la Diputación Foral para ocupar tales cargos.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Administración Local, y previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada en el día de la fecha,

ACUERDO

Primero. Designar Vocal Gestora Segunda de la Junta Administrativa de Acebedo a Doña Mª Jesús Conde Gallo.

Segundo. La citada Vocal Gestora, conforme a lo prevenido en el apartado Segundo del Acuerdo 829/1985, de 26 de marzo, deberá tomar posesión de su cargo en sesión extraordinaria convocada al efecto por el Regidor-Presidente y que deberá celebrarse en el plazo de los siete días hábiles siguientes a aquél en el que se reciba la comunicación del presente Acuerdo.

La Certificación del Acta de tal sesión deberá ser remitida, en el plazo de los tres días siguientes a la fecha de su celebración, a esta Diputación Foral.

Tercero. Que por el Departamento de Administración Local se proceda a la publicación en el BOTHA de este Acuerdo.

Vitoria-Gasteiz, a 10 de septiembre de 2013.– La teniente de diputado general, MARTA ALAÑA ALONSO.– El diputado de Administración Local, JAVIER RUIZ DE ARBULO CERIO.